

<b>Lan-eskaintza</b>	Erref. Tec. EpTS/Com
----------------------	-------------------------

Erakundea

**medicusmundi Bizkaia**

Lanpostua

**Gizartea Eraldatzeko Hezkuntza eta Komunikazio teknikaria**

Lantokia

**medicusmundi Bizkaiaren egoitza (Bilbo)**

Lanpostuaren deskribapena

Hautatzen den pertsona **medicusmundi** Bizkaiaren bulegoan hasiko da lanean. Gizartea Eraldatzeko Hezkuntza taldean integratuko da teknikaria gisa eta Komunikazioaren ardura izango du.

Lanpostuaren eginkizunak

**Gizartea Eraldatzeko Hezkuntza Arloa (GEH)**

- GEH proiektu berriak identifikatu eta prestatu.
- Abian dauden proiektuei atxikitako GEH jarduerak antolatu eta egikaritu.
- GEH jardueretan parte hartzen duten erakunde kolaboratzaileekin koordinatu.
- Gauzatzen dauden proiektuen jarraipen tekniko eta finantzarioa.
- Elkartearen ohiko jardueretan eta taldeen plangintza eta hausnarketa irekiko prozesuetan parte hartu, laneko prozesuak moldatzeko, egokitzeko eta hobetzeko.
- Parte-hartze aktiboa arloari lotutako talde eta sareetan.
- Elkartearen boluntarioak GEH jardueretan koordinatu eta engaiatu.

**Komunikazio Arloa**

- **medicusmundi** Bizkaiaren multimedia-euskarri elebidunak (besteak beste, buletinak, memoria, berripaper digitala, bideoak) koordinatu.
- Web-orria, bloga eta sare sozialak koordinatu eta kudeatu.
- Beste erakunde batzuekin egindako kanpainak koordinatu.
- Tokiko eta erkidegoko komunikabideen agenda eguneratu eta kudeatu.
- Prentsa-oharrak egin, komunikabideetara bidali eta eduki elebidunak sortu elkartearen komunikazio-euskarrietarako.
- Elkartearen boluntarioak komunikazio zereginetan koordinatu eta engaiatu.
- Elkartearentzako funtsak bilatzeko batzordean parte hartu.

Profila (Lanpostuaren betekizunak)

- Unibertsitate-prestakuntza.
- Prestakuntza osagarria Gizartea Eraldatzeko Komunikazio eta Hezkuntzan.

**Profila (baloratuko diren alderdiak)**

- Esperientzia Gizartea Eraldatzeko Hezkuntza proiektuak egiten, gauzatzen, jarraitzen eta justifikatzen.
- Esperientzia antzeko lanpostu batean.
- Euskararen ezagutza maila handia, bai ahozkoan, bai idatzizkoan (baztergarria). EGA edo C1.
- Prestakuntza Generoan.
- Prestakuntza Osasuna eta Lankidetzan.
- Informatika eta ofimatikako tresnen ezagutza (Excel, Word,...).
- Ekimena, taldean lan egiteko gaitasuna, autonomia, aldaketara egokitzeko gaitasuna.
- Frantsesaren edota ingelesaren ezagutza.
- **medicusmundi** edota beste elkarte batzuetan boluntario gisa burututako ibilbidea.
- Bizkaian bizitzea.

**Kontratuaren baldintzak**

- Kontratu mugagabea.
- **medicusmundi** Bizkaia baremoaren arabera ordainsaria.
- Lanean berehala hastea.
- 37 orduko lanaldia astean.
- Ordutegi malgua.
- Tokietara bidaiatzeko prestutasuna.

**Hautagaien aurkezpena**

Bidali Curriculum vitæ eta motibazio-gutuna posta elektronikoz hona:  
**medicusmundi Bizkaia**  
Posta elektronikoa:  
bizkaia@medicusmundi.es

**Aurkezteko azken eguna:**

**2022ko otsailaren 18a**